

FUNTSEZKO ELKARTEA

Gure produktua ekoitzi ahal izateko, funtsezko hainbat elkarketa egingo ditugu. Elkarketa hauek oso garrantzitsuak dira, gure produktua ondo egiteko, kalitate ona izateko eta jendeari benetan laguntzeko. Airezko Kabina ez da gauza bakar batez osatzen den produktu bat, baizik eta hainbat atal behar ditu, eta horregatik beste enpresa batzuekin elkartu behar gara.

Lehenengo elkarketa kabinen kanpoko egitura egiteko izango da. **Alumirun** enpresan erosiko dugu. Airezko Kabina kanpotik kabina normal baten antzekoa izango da, baina oso erresistentea izan behar du, hondartzetan egongo delako, eguzkia, eta haizea jasanez. Horregatik, ez dugu kabina hutsetik egingo, baizik eta kanpoko kabinak edo egitura bidrikoak egiten dituen enpresa batekin elkartuko gara. Enpresa honek esperientzia izango du eta kalitatezko materialak erabiliko ditu. Enpresa honekin bezero-hornitzaile harremana izango dugu, kabinak garaiz eta egoera onean jasotzeko.

Bigarren elkarketa oso garrantzitsua da, Airezko Kabinaren funtzionamendurako oinarrizkoa delako eta **Alibaba webgunean** erosiko dugu hori. Kabinaren barruan aire-sistema berezi bat dago: lehenengo aire epela botatzen du gorputzeko ura kentzeko, eta gero aire indartsuagoa erabiltzen du hondarra askatzeko. Sistema hori guk geuk sortzea oso zaila izango litzateke, horregatik aire-makinak, haizegailuak eta motor industrialak egiten dituen enpresa batekin elkartuko gara. Enpresa honek egingo ditu aire-motorrak eta hodiak. Enpresa honekin ere bezero-hornitzaile harremana izango dugu, sistemak seguruak, indartsuak eta fidagarriak izan daitezen.

Hirugarren elkarketa kontrol-sistemarekin lotuta dago. **Alibaba**-n ere erosiko dugu. Airezko Kabina automatikoa izango da, hau da, kabinan sartzen zarenean, zuk ez duzu botoirik sakatu beharko. Horretarako, sentsoreak eta kontrol-txipak egiten dituen enpresa batekin elkartuko gara. Enpresa honek kabinak noiz hasi eta noiz gelditu behar duen kontrolatuko du. Horrela, erabiltzaileentzat oso erraza izango da. Elkarketa hau ere bezero-hornitzaile motakoa izango da.

Horrez gain, gure produktua instalatzeko eta mantentzeko, beste elkarketa batzuk ere beharko ditugu. Airezko Kabinak hondartzetan jarriko direnez, norbaitek instalatu eta noizean behin konpondu beharko ditu baina hortaz udaletxea arduartuko da. Garrantzitsua izango da, kabinak beti ondo funtzionatzeko.

Azkenik, gure produktua saltzeko, batez ere udalekin elkartuko gara. Gure helburua ez da pertsona bakoitzari kabina bat saltzea, baizik eta udalek kabinak erosi eta hondartzetan jartzea, herritar guztiek erabili ahal izateko. Udalek zerbitzu berri eta erabilgarri bat eskainiko diete herritarrei, eta hori oso positiboa izango da. Udalekin dugun harremana bezero-hornitzaile harremana izango da. Gainera, Amazonen ere eros daiteke, baina batez ere udalentzat pentsatutako produktua izango da.